BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSARAKO OHARRA**

**HERRI LAN ETA GARRAIOETAKO BATZORDEA**

# Batzar Nagusiek eskaerea egin deutsie ADIFeri, FEVEren Zorrotzako trenbide pasagunea kendu daian

Bilbon, 2013ko irailaren 12an

Bizkaiko Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak Arauz Besteko Proposamen bat onartu dau gaur goizean, ADIFeri "FEVEko trenbidea Zorrotzako zatian lurperatzeko proiektua gauzatu daian" eskatzeko. Holan Santa Agedako trenbide pasagunea kendu egin ahal izango litzateke. Bilduk aurkeztutako ekimena Batzarretako talde guztiek bultzatu dabe, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) izan ezik. Talde hori abstenidu egin da, oporretako etenaldiaren ostean "batzarretako ikasturtea" zabaldu dauen bozketan.

Batzarretako talde guztiak, trenbide estuko Estaduko konpainiaren trenbidearen trazadua aldatzearen alde agertu dira. Bilduren eretxiz, 2012an, RENFEk bere esku hartu eta gero, FEVE barruan izandako aldaketak dirala eta, proiektua "ahaztutako kaxoian aparkauta" geratu dala pentsau daiteke. Konpainiaren lehengo presidenteak, Ángel Villalbak, eukan ideia berreskuratzearen alde agertu dira. 2011ko urrian, aurrekontuan "30 milioi euro jartea" proposau eban, "2012ko lehenengo hiruhilekoan" hasi ahal izango ziran lurperatze beharrak egiteko, Zapateroren Gobernuan FEVEko arduradun izan zanaren berbetan.

PP taldeak batzordean dauen ordezkariak, Jesús Isasik, ezeztu egin dau proiektua baztertuta dagoanik. "Inork ez dau ahaztutako kaxoian aparkauta itxi", esan dau. Bere eretxiz, Bilbao Ría 2000 soziedadea izan behar da "biztanleen segurtasunerako beharrezkoa dan" obra adostu eta finantzau behar dauena, eta obra hori "ahalbait eta arinen egin behar da, herrialdearen egoera ekonomikoak horretarako aukera emoten dauenean". "Badakigu proiektuan beharrean dabilzala", esan dau. Aitor Torrek (Bildu), barriz, esan dau ADIF izan behar dala aurrekontu partidak jarri behar dituana, eta ez Bilbao Ría 2000, izan be, batzordekide abertzalearen eretxiz, hori, "ia desagertuta" dagoan soziedadea da.

## EUSKOTRENEN PARTE HARTZEA BIZKAIBUSEKO LEHIAKETETAN

Beste alde batetik, Itziar Garamendi, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatua, PP taldeak eskatuta agertu da Batzordearen aurrean, Lehiakortasunaren Euskal Kontseiluak, Batzar Nagusiek eskatuta, emondako txostenari erantzuteko, Bizkaibusek deitutako lehiaketa publikoetan EuskoTrenen parte hartzeari jagokonez. Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, "kontsultarako" erakunde horrek, bere "gomendioak" Eusko Jaurlaritzara bideratu ditu, eta ez Foru Aldundira, Euskotrenbideak soziedade publikoa "operadore pribauakaz lehian ibili beharrean" bere eginbeharrera mugatu daian, txostenak berak, ondorioetan, adierazoten dauenez, "interes publikoagaitik" parte hartzen dauela erakusten ez badau.

Garamendik adierazo dauenez, Euskotrenek Bizkaibuseko lineak ustiatzeko lehiaketa publikoetara aurkeztea erabagiten badau, bere sailak "jarri beharreko arretea jarriko dau", parte

hartze hori “lehiakortasun desleiala izan ez daiten”. Diputatuak adierazo dau “zailtasunak” egongo litzatekezala interes publikoa mugatzen dauan marra hori zein dan zehaztasun osoz erabagiteko, bere esanetan txostenak ez dauelako “hori argitzen”. Balizko hori gertatu ezkero, Aldundiko kontratazino mahaia izango litzateke hori egingo leukena, “eskatu beharreko txostenak eskatuz”, esan dau.

## MOBIKORTASUN “ALKARKIDEA” BULTZATZEA

Saioko azkeneko puntuan, Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak Socialistas Vascos Taldeak egindako eskaereari erantzun deutso, “mobikortasun alkarkidea” bultzatzeko Sailak asmotan darabilzan ekimenei buruzko argibideak emon daizan. Sistema hori, ibilgailuak trukatzean, lagatean eta alokatzean eta ibilpideak partekatzean oinarritzen da.

Garamendik adierazo dauenez, Foru Aldundiak beharrean jarraituko dau “betiko” mobikortasun alkarkide sistemak, gaur egun garraio publiko izenez ezagutzen diranak (metroa, autobusa…) hobetzeko, bere eskumenen barruan, eta baita “sortzen ari diran eta, seguruenez, gure mobikortasunean gero eta leku gehiago hartuko daben” mobikortasun alkarkide sistema barrien potentzialtasunak “aztertzen” be. Horreen artean, Garamendik “car-pooling”-a, “car-sharing”-a, modalitate guztietan, eta partekatutako bizikleta azpimarratu ditu.

Bere agerraldian, diputatuak zalantzak agertu ditu lehenengoaren, “car-pooling”-aren, aurrean. Sistema horretan, bitartekari baten bidez, automobila norbanakoen artean partekatzen da, bidaia bat egiteko. Garamendiren eretxiz, sistema hori “nahiko iluna da fiskaltasunari jagokonez” eta, aseguruen legediaren ikuspuntutik “ez dago argi” erantzukizuna, bidaiariak garraioarengaitik diru-kopuru bat ordaintzen dauelako.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

**COMISIÓN DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTE.**

# Las Juntas Generales instan a ADIF a que elimine el paso a nivel de FEVE en Zorrotza

Bilbao, a 12 de septiembre de 2013

La Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana una Proposición No de Norma en la que se insta a ADIF "a la ejecución del proyecto de soterramiento de las vías de FEVE" a su paso por el barrio bilbaíno de Zorrotza, lo que supondría eliminar el paso a nivel de Santa Agueda. La iniciativa planteada por Bildu ha sido apoyada por todos los grupos de la Cámara, a excepción del grupo Popular Vizcaíno (PP), que se ha abstenido en una votación que ha abierto el "curso parlamentario" tras el paréntesis vacacional.

Todos los grupos de la Cámara se han mostrado favorables a modificar el trazado ferroviario de la compañía estatal de vía estrecha. Bildu cree que los cambios experimentados en 2012 en el seno de FEVE cuando esta empresa fue absorbida por RENFE, invitan a pensar que el proyecto ha quedado "aparcado en el cajón del olvido". Se han mostrado partidarios de recuperar la idea del anterior presidente de esta compañía, Ángel Villalba, quien en octubre de 2011 propuso "aportar 30 millones de euros" al presupuesto para acometer unos trabajos de soterramiento que hubieran podido comenzar "en el primer trimestre de 2012", según el que fue responsable de FEVE con el Gobierno de Zapatero.

El representante del PP en la comisión, Jesús Isasi, ha negado que el proyecto esté aparcado. "Nadie lo ha dejado en el cajón del olvido", ha dicho. Se ha mostrado partidario de que sea la sociedad Bilbao Ría 2000 quien acuerde y financie la obra, "necesaria para la seguridad de los vecinos", y que se haga "a la mayor brevedad posible cuando las disponibilidades económicas del país lo permitan". "Nos consta que se está trabajando en el proyecto", ha confirmado. En cambio, Aitor Torre (Bildu) ha indicado que debe ser ADIF quien aporte las partidas presupuestarias y no Bilbao Ría 2000 ya que, para el apoderado abertzale, ésta es una sociedad que está "casi extinta".

## CONCURRENCIA DE EUSKOTREN EN LOS CONCURSOS DE BIZKAIBUS

Por otra parte, la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha comparecido, a instancias del PP, para responder al informe emitido por el Consejo Vasco de la Competencia a petición de las Juntas Generales, en relación a la concurrencia de Euskotren a los concursos públicos de Bizkaibus . La responsable foral ha resaltado que este órgano "consultivo" ha dirigido sus "recomendaciones" al Gobierno Vasco y no a la Diputación, para que la sociedad pública Euskotrenbideak se ciña a su cometido "sin concurrir en competencia con operadores privados", salvo en el caso de que pueda acreditar la concurrencia de "interés público", como dice el propio informe en sus conclusiones.

En caso de que Euskotren decidiera presentarse a los concursos públicos para explotar líneas de Bizkaibus, Garamendi ha afirmado que su departamento "prestará la debida atención" para que dicha concurrencia "no suponga una competencia desleal". La diputada ha admitido que existirán "dificultades" para determinar exactamente cuál es la raya que delimita ese interés público, que el informe –según ella-, "no resuelve". En ese supuesto, será la mesa de contratación de la Diputación quien lo haga "recabando los informes oportunos", ha dicho.

## INCENTIVACIÓN DE LA MOVILIDAD "COLABORATIVA"

En el último punto de la sesión, la diputada de Obras Públicas y Transportes ha respondido a la petición del grupo Socialistas Vascos en relación a las acciones que tiene pensado desarrollar su departamento para incentivar la "movilidad colaborativa", consistente en el intercambio, préstamo, alquiler y realización de trayectos de manera compartida.

Garamendi ha garantizado que la Institución foral seguirá trabajando para mejorar los sistemas de movilidad colaborativa "tradicionales" dentro de sus competencias, lo que hoy se conoce como transporte público (metro, autobús...) y "explorar" las potencialidades de los nuevos sistemas de movilidad colaborativa que "comienzan a asomar y que, previsiblemente, irán incorporándose progresivamente a nuestra movilidad". Entre ellos, Garamendi ha destacado el "car-pooling", el "car-sharing" en sus diferentes modalidades, y la bicicleta compartida.

La diputada ha mostrado en su comparecencia dudas con respecto al primero de ellos, el "car-pooling", una práctica que permite realizar un viaje compartido en coche entre particulares a través de un intermediario. Garamendi cree que este sistema es todavía "opaco fiscalmente" y, desde un punto de vista de la legislación del seguro, "no está clara" la responsabilidad del tomador al abonar el viajero un importe por el transporte.